

Nun aiz ?

Nun aiz, gurera-bide zar ? nun ire bizkar ?
Nun koskak, ni, jostari, nabillen gañez-gaiñ ?
Ezin nik igan oiñatz... Nun duk bizkar biguiñ ?
Estal aute -... Gordaillu zaik arri gogorra !...
Neretarren kutsurik asko ba ukan igan :
Itz... oiñatz.. itzal... oro eurekin eraman !...
Aitonen asabengan ni ere or ibill...
Bestela ni ezin « ni »... ezta irekin bill !!!
Ene negar-deitara, azkenik, entzungor,
asaben bide zarra gurera-bidea...
Iur, arri, « galipotaz » ago gaur gordea.
Oiñatz, itzal geiago !... TORIK ILLOTS SARKOR !

Bide Mingotzak

Otsalar

Ene gaztaro mingotza
bene-benetan beltza
aterpe bage, noiz atertuko
ekaitza.

Orain uxa,
gero bultza ;
zoritxarrez, etorkizuna dut
aurka.

Garra ta negarra,
a ! zurrunbillua,
sortzetik daramat naspil
ingurua.

Ainbeste nai nun
gogo azkatasun,
nun ote ? zelako ote ?... Enetzat
ez-ezagun.

Aberri erazpen
ene biotzaren kaden.

Zure aiena otsak, nire erraiak
mintzen.

Mundu zabalean
iñoren mendean.

Etsai zitalak gaitik mirabe biurtu
ziñan.

Dakartzun adin
inork ez-lako ludin.

Ondorengo erriak jarri zaitu
otsein.

Noiz arte arerio
saparrada giro ?...

Aberri iopu baten juan zait
gaztaro.

Naiz zu uztarpetu,
etzaitut lazotu ;

zure menpeko, beti natzaizu
gertu.

Erbal eratzi bage
emango nuke,

milla aldiz ene bizia zure gaizka
truke.

Zu iltzen ikusi,
zertarako bizi ?

Aberri bageko azkatasunak ez baitu
merezi.

Illeta zori ?...
nik ezin etzi.

Il bear ba-duzu, ni zurekin
suntzi !